

Koiuntura di-da batean

2018ko apirila

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
 2. Inflazioa
 3. Enpresen konfiantza
 4. Familien konfiantza
 5. Nazioarteko merkataritza
 6. ELGEren aurreikuspenak
- Eranskina

1. EAEko BPGa gorantz zuzendu da berriro.

Laugarren aldiz jarraian Eusko Jaurlaritzak 2018rako aurreikuspena hobetu du.

2. Argindarraren garestitzeak KPIa gorarazi zuen otsailen.

Hori dela eta, aurreko hilekoaren jaitsiera bizia konpentsatuta geratu da.

3. Enpresen konfiantzak hobekuntza esanguratsua izan du.

2018ko bigarren hiruhilekoari buruzko igurikimenak aurreko datuak baino askoz ere baikorragoak dira.

4. EAEko familien konfiantza balio positibotan finkatu da.

Baikorragoak dira ekonomia orokorraz beren familiaren ekonomiaz baino.

5. Nazioarteko merkataritza sendo hazi zen 2017an.

Europako eta Asiako esportazioek gorakada bizia eza-gutu zuten.

6. ELGEk zertxobait hobetu ditu munduko hazkunderaren aurreikuspenak.

Protektionismoa da erakunde horrek seinatzen dituen arriskueta bat.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


OGASUN ETA EKONOMIA
SALA
Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Financiación

EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK


EAEko BPGa gorantz zuzendu da berriro

Barne produktu gordina Urte arteko aldakuntza tasa




Kontu ekonomikoen laugarren hiruhilekoko datuak ezagututa eta testuinguruko hipotesiak gaurkotuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak gorantz berrikusi du 2018rako ekonomia hazkundera, orain %2,6an kokatu duena, aurreko datua baino hamarren bat gorago dagoela. Adierazi behar da azken hori gorantzko laugarren zuzenketa dela, kanpo zein barne testuingurua aurreikusi zena baino hobetago delako. Hiruhilekoka aztertuta, bigarren hiruhilekotik aurrera moteltze leuna aurreikusten da, azken kontsumoaren bilakaera 2017an izan zuena baino apalagoa izango delako, nahiz eta oraindik gehikuntza nabarmena lortuko duen. Kapital eraketa gordinak, berriz, bilakaera egonkorragoa erakutsiko du eta ez du aldaketa handirik ezagutuko 2017ko emaitzaren aldean. 2019an EAEko ekonomia %2,2 haziko dela aurreikusten da.


Azken kontsumoa Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital eraketa gordina Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Sektoreen ikuspegitik, industriarentzat aurreikusituen den moteltzea nabarmendu behar da. Hala ere, urteko batez bestekoa 2017koa baino handiagoa izan daiteke. Eraikuntzak ere apaltzeko joera arina erakutsiko du urtean zehar. Azkenik, zerbitzuek 2017ko amaierako bizitasunaren antzekoa izango dute.

Aurreikuspen horretan, enplegu sorrera %1,9an kokatu da 2018an, azken hiru urteetan eskuratu-tako tasetatik nahiko hurbil. Horrek 17.500 lanpostu garbi gehituko dizkio EAEko ekonomiari. Pausoz pauso, langabezia tasak behera joaten jarraituko du eta 2019ko amaieran %10,0aren azpian egon daiteke.

Enplegua
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia tasa
Urte arteko aldakuntza tasa




INFLAZIOA

Argindarraren garestitzeak KPIa gorarazi zuen otsailean

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa




Azken bi hilekoetan, kontsumoko prezioen indizeak joan-etorriko mugimendua marraztu du bere urte arteko bilakaeran. Izan ere, urtarrilean sei hamarren jaitsi zen, %0,5era arte, eta otsailean bost hamarren igo zen, %1,0ra arte. Aldakuntza horien jatorria argindarraren prezioan dago, urte hasieran merkatu baitzen eta otsailean, berriz, garestitu, hotzogatik eta eskariaren igoeragatik.

KPIaren banaketa Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	1,0	1,0
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	1,1	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,6	0,7
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	1,0	0,2
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	0,6	0,1
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	1,3	0,1


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Lehenengo aldiz hainbat urtetan, energiaren osagaiak ez du nabarmentzeko moduko eraginik izan indize orokorraren datuan eta bai azpiko inflazioa bai hondar inflazioa %1,0 hazi ziren otsailean. Petrolioaren salneurria dolarretan neurtuta izaten ari den garestitzea europar diruaren balio irabaziak konpentsatu du.

Produktu taldeka, komunikazioetan (%2,4) bakarrik hauteman dira goranzko tentsioak, telefoniako paketeen garestitzearen ondorioz. Beste muturrean, etxerako tresnen prezioak (%-0,1) eta aisia eta kulturarenak (%-0,5) 2017ko otsailean zeudenak baino merkeagoak dira. Eurogunearekin erkatuta, ez dago alderik KPIaren gehikuntza erritmoan, baina talde batzuetan (hezkuntzan, komunikazioetan, eta edari alkoholduak eta tabakoan) kontrako bilakaera hautematen da.

KPIaren talde nagusiak


Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko otsaila

	Euskadi	Espainia	Euro gunea
INDIZE OROKORRA	1,0	1,1	1,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,9	0,9	0,6
Edari alkoholduak eta tabakoa	1,5	1,4	2,9
Jantziak eta oinetakoak	0,6	0,6	0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	1,3	1,4	1,7
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,1	0,0	0,3
Medikuntza	0,1	0,2	0,9
Garraioa	1,1	1,1	1,5
Komunikazioak	2,4	2,3	-1,2
Aisia eta kultura	-0,5	0,6	0,9
Hezkuntza	1,0	0,7	-2,1
Jatetxeak eta hotelak	1,7	2,1	1,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,6	0,8	1,2

ENPRESARIEN KONFIANTZA

EAEko enpresarien konfiantzak hobera egin du


Enpresarien konfiantza indizea



Laboral kutxak osatzen duen enpresarien konfiantza indizeak baikortasuna hauteman du EAEko enpresarien artean 2018ko bigarren hiruhilekoari begira. Zehazkiago adierazita, indize orokorra 61,7ko balioa eskuratu du, aurreko hiruhilekoan jasotako emaitzaren aldean gorakada garrantzitsua izan duelarik.


Ikuspegi baikor hori enpresek ekonomia inguruneaz dituzten igurikimenean oinarritzen da, baina indize orokorra osatzen duten gainontzeko aldagaietan ere nagusi da. Izan ere, enpresariak aurreikuspen onak dituzte fakturazioaz, jardueraz, eskarien bolumenaz, prezioez eta eragiketen errentagarritasunaz. Halaber, enpresek ekoizteko ahalmena handitzeko eta langileen kopurua igotzeko asmoa daukatela aitortu dute estatistika honetan.

Enpresarien igurikimenak. 2018ko II hiruhilekoa



Iturria: Laboral kutxa.


Enpresarien igurikimenak aldagaien arabera




Inkestan landu diren, eta indize orokorrean parte hartzen ez duten, beste galdera batzuek ere enpresarien baikortasuna 2018ko bigarren hiru hileroaz handitu dela iradokitzen dute. Enpresarien igurikimen baikorrak nagusi dira esportazioen bilakaeran, bezeroei kobratzeko epean eta banku finantzaketa lortzeko erraztasunean.

EAEko enpresek azken urtean egin duten berrikuntzari buruz, inkesta erantzun duten guztietatik %68,7k aitortu du I+G ekimenei bideratu duten salmenten portzentajea maila minimoetan (%0aren eta %0,5aren artean) zegoela. Aitzitik, enpresen %7,1ek %5 baino gehiago bideratu du jarduera horietara.

I+G ekimenei bideratu den salmenten ehunekoa



Banku finantzaketa lortzeko gaitasuna




Iturria: Laboral kutxa.

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA


EAEko familien konfiantza balio positibotan finkatu da

Familien konfiantza indizea




Laboral kutxak familien konfiantza indizearen datuak, 2018ko lehen hiruhilekoari dagozkionak, argitaratu ditu. Adierazle horren arabera, 2017ko bigarren hiruhilekoan hasi zen konfiantza susperraldiak finkatzeko prozesuari jarraipena eman dio. Lau urtez lehenengo aldiz, urte bateko lehen hiruhileko batean datu positiboa lortu da. Kontuan hartu behar da normalki, eta serieak duen urtarokotasunaren ondorioz, lehen hiruhilekoko datua ez dela urteko onena izaten. Beraz, 2018ko lehen hiruhilekoko emaitza aurreko urteetako lehen hiruhilekoetako datuekin alderatzen bada, hobekuntza esanguratsua da. Zehazkiago, eta adierazle horren osagaiak aztertuz, ikuspegi baikorragoa hautematen da ekonomia orokorraz norberaren familiaren ekonomiaz baino.

Ekonomia orokorra




Familien ekonomia




Iturria: Laboral kutxa.

Langabeziaren bilakaera



Aurrezteko ahalmena



2018ko lehen hiruhilekoan nabarmendu behar den beste ezaugarri bat EAEko familiek langabeziaren bilakaeraz duten ikuspegi baikorra da, osagai horrek igurikimen onenak jaso dituelako. Beste aldetik, aurrezteko ahalmenez dauden igurikimenak oraindik eremu negatiboan geratu dira. Oro har, gazteak (25 eta 39 urte bitartean daudenak) dira baikorrenak. Aitzitik, 65 urtetik gorakoak dira, argi eta garbi, ezkorrenak. Era berean, emaitzak positiboagoak dira lana duten pertsonen artean eta errenta altuenak jasotzen dituztenen artean. Gaur eguneko unea egokia ote den erosketak egiteko baloratzeko orduan, atzerapen txiki bat geratu da 2018ko hastapenetan.

Ingurune herrialdeekin alderatuta, diferentzia handiak hautematen dira Europako kontsumitzaileen artean. Alemaniako eta Herbeheretako familiak Europako batez bestekoa baino baikorragoa da. Ezkorrenen artean, frantziarrak eta italiarrak daude. EAEko familien konfiantza maila Estatuko eta Euroguneko batez besteko familien antzekoa da.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2016	2017	2016		2017				2018
			III	IV	I	II	III	IV	I (*)
EUSKADI	-5	1	-5	-3	-3	5	0,4	1	1
Eurogunea	-7	-2	-5	-6	-5	-3	-1	0	1
Europar Batasuna	-6	-3	-7	-6	-5	-3	-2	-1	0
Frantzia	-14	-6	-14	-13	-9	-5	-5	-6	-6
Alemania	-4	3	-3	-2	-1	4	4	6	7
Erresuma Batua	-3	-6	-6	-5	-5	-6	-6	-6	-4
Italia	-9	-12	-12	-11	-14	-16	-12	-7	-6
Espainia	-4	-1	-6	-4	-3	2	0	-2	1
Herbehereak	5	16	6	12	16	15	17	18	19
Portugal	-12	0	-13	-8	-5	1	2	3	1


(*) 2018ko lehenengo hiruhilekoa: urtarril-martxoa EAERentzat eta urtarril-otsaila gainontzeko herrialdeentzat..
Iturria: Laboral kutxa eta Europar Batzordea.

MUNDUKO MERKATARITZA

Nazioarteko merkataritza sendo hazi zen 2017an


Munduko esportazioen bilakaera

Mila milioi dolar



Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) hilabetea argitaratzen dituen datuetan oinarrituta, 2017an salgaien nazioarteko merkataritza, dolarretan, suspertze garrantzitsua jaso zuen eta %10,0 hazi zen. Datu horrek amaiera eman die bi urtez jarraian izan diren jaitsierei. Orobat, azken sei urteko gorakadarik handiena da. Hobekuntzaren jatorria Europako eta Asiako esportazioen bultzada sendoan datza, salmenta guztien %78 inguru bildu baitzuten. Halere, eremu nagusi guztiek hazkunde esanguratsuak eskuratu zituzten.

Munduko esportazioen banaketa




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Munduko Merkataritza Antolakundearen datuetan oinarrituta.

SALGAIEN MERKATARITZA DOLARRETAN
Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
ESPORTAZIOAK								
Guztira	21,4	18,4	0,2	2,9	1,0	-11,0	-2,5	10,0
Ipar Amerika	22,6	16,2	3,9	1,9	3,1	-8,0	-3,4	7,3
Europa	12,3	17,8	-2,7	4,7	0,4	-12,5	-0,2	9,3
EB-barne	9,8	15,9	-7,1	3,3	3,4	-12,6	1,3	9,6
EB-kanpo	17,3	20,7	0,1	6,5	-1,9	-12,2	-2,7	10,0
Japonia	32,6	6,9	-2,9	-10,5	-3,4	-9,5	3,2	8,3
Txina	31,3	20,3	7,9	7,8	6,0	-2,9	-7,7	7,9

Europar Batasunaren emaitza onenak Europar Batasunean bildu ziren, salmentak %9,8 handitu zituelako. Kontinente zaharraren barnean zein kanpoan handitu ziren salmentak, bi ataletan %10,0aren inguruan hazita. Asian, salmentak 6.240 mila milioi dolarretara iritsi ziren, historia osoko bigarren zenbakirik gorena baita, eskualde barneko trafikoaren igoerari eta Iparramerikako inportazio eskaren susperraldiari esker. Txina da, alde handiz, eremu horretako esportatzaile handiena, salmenta guztien ia erdia bereganatuta. Japoniak ere emaitza ona eskuratu zuen 2017an.

Europar Batasunaren esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

SALGAIEN MERKATARITZA DOLARRETAN
Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
INPORTAZIOAK								
Guztira	22,0	19,3	0,6	1,4	0,3	-12,6	-2,5	11,2
Ipar Amerika	23,2	15,2	3,2	0,1	3,3	-4,5	-2,9	7,3
Europa	13,1	17,4	-4,3	1,4	1,2	-13,2	0,4	9,8
EB-barne	9,8	15,9	-7,1	3,3	3,4	-12,6	1,3	9,6
EB-kanpo	17,7	18,7	-4,0	-3,1	0,4	-14,7	-1,3	10,6
Japonia	25,7	23,2	3,6	-6,1	-2,4	-20,2	-6,2	10,6
Txina	38,8	24,9	4,3	7,2	0,5	-14,3	-5,5	16,0


Inportazioen atalean, eremu guztiek hazkundera bizkortu zuten. Munduko inportatzaile nagusia Europa izan zen berriro eta bere erosketak handitu zituen eremuaren barnean zein kanpoan. Asiak ere sendo areagotu zituen erosketak, bi urtez jarraian etengabeko beherakadak jaso ondoren, baina, gainontzeko eremuak ez bezala, indarra galdu zuen urtean zehar. Moteltzeko joera hori Txinak baldintzatu zuen, erosteko erritmoa galgatu zuelako. Hain zuzen ere, urte hasieran %24 inguru handitu zituen bere erosketak, baina laugarren hiruhilekoan herrialde hartako inportazioak %12,5 hazi ziren. Tasa hori oraindik garrantzitsua da, baina lehen laurdenean jasotakoaren ia erdia da.

ELGE-REN AURREIKUSPENAK

ELGEk zertxobait hobetu ditu munduko hazkundearen aurreikuspenak

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) martxoko bitarteko aurreikuspenak argitaratu ditu. Erakunde horrek %3,9an kokatu du munduko ekonomiaren hazkunde tasa 2018an eta 2019an. Tasa horrek 1987-2007 epealdian jasotako batez besteko gehikuntza berdindu du. Ekonomia hazkunde globalaren aurreikuspen berriak 2017ko azaroan argitaratu zirenak gozantz berrikusi ditu. Munduko merkatari-tzak eta inbertsioak ekonomiaren garapena lagunduko dute. Haiekin batera, enplegu sorrerak ere lagunduko du.


ELGEren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2017	2018	2019	2018	2019
Munduko ekonomia	3,7	3,9	3,9	0,2	0,3
AEB	2,3	2,9	2,8	0,4	0,7
Eurogunea	2,5	2,3	2,1	0,2	0,2
Alemania	2,5	2,4	2,2	0,1	0,3
Frantzia	2,0	2,2	1,9	0,4	0,2
Italia	1,5	1,5	1,3	0,0	0,0
Erresuma Batua	1,7	1,3	1,1	0,1	0,0
Kanada	3,0	2,2	2,0	0,1	0,1
Japonia	1,7	1,5	1,1	0,3	0,1
Txina	6,9	6,7	6,4	0,1	0,0
Korea	3,1	3,0	3,0	0,0	0,0
India	6,6	7,2	7,5	0,2	0,1
Brasil	1,0	2,2	2,4	0,3	0,1

Iturria: ELGE.


AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Alemaniariko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Goranzko zuzenketak egin ditu Euroguneko bi ekonomia nagusientzat, hots, Alemaniarentzat eta Frantziarentzat. Izan ere, erakundeak aurreikusi du Eurogunea %2,3 haziko dela 2018an eta moteltze arina biziko dela hurrengo urtean, %2,1 arte. Erresuma Batuko ekonomiaren hazkunde erritmoa Eurogunearena baino nabarmen apalagoa izango da. Moteltzeko joera hori baldintzatuko duen faktore behinena Brexitaren negoziazioa izango da.

Mundu mailan, etorkizunean hautematen diren arrisku eta ziurgabetasun handienak hauek dira: ekonomia aurreratuetan espero diren moneta politika ez hain egokitzailak, zor handiak eta aktiboen balio altuak ekar dezaketen zaugarritasuna, eta merkataritza arloan nabaritzen den protekzionismo handiagoa, ekonomiaren hazkundera eta lan merkatua kaltetu ditzakeena.

Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016			2017	
		IV	I	II	III	IV
BPG	3,1	3,0	2,8	2,9	3,0	3,0
Familien kontsumoa	3,1	3,1	3,0	3,0	3,0	2,8
Administrazioaren kontsumoa	2,3	3,1	2,6	1,2	2,7	2,9
Kapital eraketa gordina	3,1	2,9	3,0	3,2	3,9	3,8
Barne eskaria	3,0	3,0	2,9	2,7	3,1	3,1
Esportazioak	1,7	-0,4	1,5	1,9	3,7	4,8
Inportazioak	1,5	-0,2	1,9	1,8	3,9	4,8
Lehen arloa	2,0	-1,5	4,2	-1,9	-1,9	-11,9
Industria	2,9	2,7	2,0	2,3	2,7	3,7
Eraikuntza	1,8	2,4	2,1	1,9	3,0	3,1
Zerbitzuak	2,8	2,7	3,0	3,2	3,1	2,9
Balio erantsi gordina	2,7	2,6	2,7	2,9	3,0	3,0
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	6,4	3,3	2,4	3,0	3,2

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2018ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018				2018	2019
	I	II	III	IV		
BPG	3,0	2,7	2,5	2,4	2,6	2,2
Barneko azken kontsumoa	2,7	2,5	2,2	2,2	2,4	1,9
Familien kontsumoa	2,8	2,6	2,3	2,3	2,5	2,0
Administrazioaren kontsumoa	2,0	1,8	1,6	1,8	1,8	1,6
Kapital eraketa gordina	3,5	3,3	3,5	3,2	3,4	2,8
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,8	2,6	2,6	2,7	2,3
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	-0,1	-0,1	-0,2	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-2,5	-5,7	-9,9	-9,4	-6,9	-5,9
Industria	3,4	3,1	2,8	2,5	2,9	2,2
Eraikuntza	2,7	2,4	2,1	1,9	2,3	1,7
Zerbitzuak	3,0	2,8	2,7	2,7	2,8	2,3
Balio erantsi gordina	3,1	2,7	2,6	2,5	2,7	2,2
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,0	2,5	2,3	2,2	2,5	2,0
Enplegua	2,2	2,0	1,8	1,6	1,9	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
Confebask	2,9	—	Laboral kutxa	2,7	—
BBVA	2,8	2,5	CEPREDE	2,4	—
Funcas	2,7	—	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,2	2,3

Iturria: CEPREDE (2018ko otsaila), BBVA (2018ko otsaila), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2017ko abendua), Funcas (2017ko azaroa) eta Hispalink (2017ko abendua) .

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			
			I	II	III	IV
BPG	3,3	3,1	3,0	3,1	3,1	3,1
Kontsumo pribatua	2,9	2,4	2,2	2,4	2,4	2,5
Kontsumo publikoa	0,8	1,6	1,0	1,5	1,4	2,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	5,0	4,9	3,9	5,6	5,6
- Aktibo finko materialak	3,4	5,2	5,2	4,1	5,7	6,0
- Eraikuntzan	2,4	4,6	4,5	4,3	5,1	4,8
- Ekipamendu ondasunetan	4,9	6,1	6,1	3,9	6,6	7,7
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,7	3,7	3,5	2,9	5,0	3,3
Nazio eskaria (ekarpena)	2,5	2,8	2,5	2,5	3,0	3,2
Esportazioak	4,8	5,0	5,6	4,5	5,6	4,4
Inportazioak	2,7	4,7	4,5	3,1	5,9	5,2

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
AFI	2,8	2,3	Intermoney	2,8	2,4
Axesor	2,8	2,4	Repsol	2,6	2,4
BBVA	2,5	2,3	Santander	2,7	2,3
Bankia	2,9	2,3	Solchaga Recio & asociados	2,9	2,4
CaixaBank	2,8	2,4	BATEZ BESTE	2,7	2,4
Cemex	2,7	2,3	Gobernua (2017-10)	2,3	—
CEEM-URJC	2,5	2,2	Espainiako Bankua (2018-03)	2,7	2,3
CEPREDE-UAM	2,6	2,3	Europar Batzordea (2018-02)	2,6	2,1
CEOE	2,8	2,6	NDF (2018-01)	2,4	2,1
FUNCAS	2,8	2,4	ELGE (2017-11)	2,3	2,1
ICAE-UCM	2,7	2,7	The Economist (2018-03)	2,8	2,2
IEE	2,8	2,3	Consensus Forecast (2018-03)	2,7	2,3

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			
			I	II	III	IV
AEB	1,5	2,3	2,0	2,2	2,3	2,5
Txina	6,7	6,9	6,9	6,9	6,8	6,8
Japonia	0,9	1,7	1,3	1,6	1,9	2,1
Kanada	1,4	2,0	2,3	3,7	3,0	2,9
Europar Batasuna	2,0	2,4	2,2	2,5	2,7	2,6
Eurogunea	1,8	2,3	2,1	2,4	2,7	2,7
Alemania	1,9	2,2	2,1	2,3	2,7	2,9
Frantzia	1,2	1,8	1,2	1,9	2,3	2,5
Erresuma Batua	1,9	1,7	2,0	1,8	1,8	1,4
Italia	0,9	1,5	1,3	1,6	1,7	1,6
Herbehereak	2,2	3,1	2,6	3,8	3,2	3,4

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2018ko martxo

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,8	2,6	2,4	2,1	3,9	3,6
Japonia	1,4	1,1	1,0	1,1	2,6	2,6
Kanada	2,1	1,9	2,1	2,0	5,9	5,9
Europar Batasuna	2,2	1,9	1,7	1,8	—	—
Eurogunea	2,4	1,9	1,5	1,5	8,3	7,9
Alemania	2,4	1,9	1,7	1,8	5,3	5,1
Frantzia	2,1	1,8	1,4	1,5	8,8	8,5
Erresuma Batua	1,6	1,5	2,6	2,2	4,4	4,5
Italia	1,5	1,2	1,1	1,3	10,7	10,2
Herbehereak	2,8	2,3	1,6	2,1	—	—

Iturria: Consensus Forecast.